




UDALETAKO EUSKARA
ZERBITZUEN TOPAKETAK
www.udaltop.eus



IZENBURUA:

BAM!-en prestakuntza saioak

EGILEA:

Jenofa Berhokoirigoin Hirigarai

DATA:

2018/05/17

udaltop

UDALETAKO EUSKARA
ZERBITZUEN TOPAKETAK
www.udaltop.eus



Aurkibidea

1. Prestakuntza inportantzia handiko momentua.	1
2. Aho Bizi eta Belarri Prest profilak	2



1. Prestakuntza: inportantzia handiko momentua

Inportantzia handia ematen diogu prestakuntza faseari. Arrazoia sinplea da: hizkuntza ohiturak gure baitan errotuak ditugu eta horretaz kontzientzia harrarazi behar zaie Aho Bizi eta Belarri Prestei. Kontzientzia hartze hau eginik, hizkuntza erabilpenean aldaketak ekartzeko bidea erraztea dugu helburu prestakuntza saioekin.

1.1. Taldean eraikiriko saioak

BAM! ekimenaz edota prestakuntza saioez aritzerakoan behin eta berriz azpimarraturiko osagai bat dugu izpiritu kolektiboarena eta horizontaltasunarena. Prestaketa saioak taldean eta horizontalki gogoetatu ditugu. Konkretuki, BAM! dinamikako zazpi-zortzi lagunek osatu talde bat muntatu eta Gemma Sanginesen TELP tailer eta Euskaltzaileen Topagunearen Zergatik ez? tailerrak oinarritzat harturik, taldean gogoetatu, eztabaidatu, marraztu eta adostu genuen kasik bi oreneko bi saio. Saio hauek esku artean, beste hemezortzi parte hartzaileei eskainiak izan ziren, autonomoki aritzeko aukera eta material guztia emanez.

Aurten prestaketa saio horiek Euskal Herri guztira zabalduko ditugu EUSKARALDIA ekimenean parte hartuko dutenen formatzeko. Aurten ere, talde lana eta dimentsio kolektiboari segi ari gara. Batetik, iazko tailerrak hartu eta prestatzaileen oharrei eta sustut, Aho Bizi eta Belarri Prest-en ekarpenei segi, berriz diseinatzen ari gara. Adibidez, Belarri Prest-ei zuzendu saioetan iaz euskaraz eman beharreko lehen hitzaren garrantzia saio hastapenean kokatzen genuen. Aurten aldiz, bukaeran. Zergatik? Ohartu girelako hastapenean planteatuz bakoitzaren errealitatea nahiko ezagutu gabe burutzen genuela saioa. Beraz, hitza uzten diegu, jakin behar dugulako lehen hitza euskaraz egiterakoan, ala hobeki erran, ez egiterakoan zein dituzten oztopoak. Batzuk baditugu identifikaturik (konplexua, baliabide eskasa,...), baina denak ez, horregatik entzun behar ditugu, osagai guztiak identifikaturik prestakuntza emankorra go izateko gisan.

Iazko tailer horiek, berriz landurik, prestakuntzarako metodologia ahal bezain baten esku utziko dugu. Konkretuki, maiatzaren 26ean saioa eskainiko dugu Gasteizen, lurralde bakoitzetarik etorritako gerorako prestatzaileei. Lurraldeetako prestatzaileek, ondotik haien lurraldean, eskainiko dute prestakuntza herri batzordeetarik etorritako gerorako formatzaileei.

1.2. Ahal bezainbat saio, ahal bezainbat partehartzaile formatzeko

Iaz Baiona, Miarritze eta Angelun gaindi, 15 bat egunez, 27 saio eskaini genituen. Orotara, 300 pertsonak segitu zituzten prestakuntzak, hots, parte hartzaileen herenak.



Parte hartzaileen herena lortu izana baikorra da, baina, pentsa daiteke ere, bi heren gelditu direla prestakuntzarik gabe. Hori horrela, antolaketan hobetu beharreko puntuen artean dugu hau: nola egin partehartzaile oraindik gehiago hunkitzeko?

Hiru pista izan daitezke: prestaketa saio gehiago eskaintzea eta horretarako, batetik, ahal bezainbat formatzaile formatzea eta bestetik, gure antolaketa kronograman denbora gehiago bideratzea prestakuntzari. Hirugarrenik, iaz aski egin ez genuena eta aurrean zainduko duguna: prestakuntza saio hauen inportantzia partehartzailea jabetzea.

2. Aho Bizi eta Belarri Prest profilak

Dauzkagun hizkuntza ohiturez kontzientziarik ez bada, ariketak ez du funtzionatzen. Kontzientziarik gabe, azken finean, Aho Bizi edo Belarri Prest txapa soinean, euskararekiko atxikimenduaren adierazpenean mugatzeko arriskua bada.

1.1. Lehenik, kontzientzia hartzea

Belarri Prest eta Aho Bizi zer den azaldu aitzin, denok barneraturik ditugun hizkuntza ohiturez ohartarazteko denbora hartzen dugu. Batetik, ohartu behar dira hizkuntza ohiturek beti eragin bat dutela, eta bestetik, hizkuntza erabilpenak ez direla beti hautu kontziente batekin burutzen. Egunerokoa ulertzeko ezinbestekoak ditugun irakurketa/azalpen teorikoak zein politikoak (ahalduntze prozesua, diglosia,...) bakoitzaren bizipenatarik abiatuz azaltzen ditugu. Azken finean, Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Xiberuari doakionez, aski berria zaigulako hizkuntza ohituretan zentratzen den irakurketa hau. Begi bistakoa zaigu euskara geroz eta guttiago erabiltzen dugula, frantsesa nagusi dela eta gure hizkuntzak aitortza bat behar lukeela. Baina, egoera soziolinguistikoa guhaurk ere elikatzen dugunaren eta beraz aldatzeko boterearen kontzientzia ez dugu beti. Horrentzat ere da biziki garrantzitsua EUSKARALDIA, kontzientzia hartze hori pizteko tresna interesgarria dugu.

Prestakuntza saioez gain, hizkuntza ohiturez ohartarazteko beste bide bat dugu ariketa esperimentatzearena. Iazko BAM!-en txapak prestatzen gabiltza, ekimen ala momentu mugatu batez ariketa burutzeko, eta bizitutakotik hainbat mekanismo, uste, postura, joera identifikatzen laguntzeko.

2.2. Testuingurua, kontutan hartu beharreko elementua

Ipar Euskal Herrian bizi denak badaki usu erabiltzen den "Iparraldea", "iparraldeko" zehaztapenek aniztasun zabal bat gordetzen dutela, errealitate arras ezberdinez osaturiko eremu bat dugulako Ipar Euskal Herria.

Demagun, bizi naizen Baiona Miarritze Angelu hiri eremuan, euskararen ezagutza %8-koa eta erabilpena %2-ekoa dira. Sortu naizen herrian haatik, Baxe Nafarroko Gamarten ia denek dakite euskaraz, %95-ak daki. Denek dakite baina ez dute denek erabiltzen. Baionan euskara ez erabiltzeko arrazoiak ez dira Gamarten ez erabiltzeko berak. Batean, testuinguruak ez du ahalbidetzen, bestean, testuinguruak osoki ahalbidetu arren ez dute ahal bezain beste



erabiltzen. Baina, bi muturretara joan gabe ere, egoera arras desberdina dugu elkarri kolaturik ditugun Amikuze eta Xarnegu artean, ala Donibane Garazi eta hortik zortzi kilometrotara den Ezterenzubin.

Ariketa bera dute denek (Aho Bizi-ak euskaraz mintzatzearena eta hari euskaraz egiteko gomita luzatzea Belarri Prest-ak), baina testuinguru arras desberdin batzuetan kokatzen dira.

Beraz, Aho Bizi eta Belarri Prest-ak definitzeko eta prestatzerako orduan ezin dugu testuingurua saihestu. Horregatik dugu ahal bezain lokalki, ahal bezainbat herri taldeen bidez marraztu eta antolatzen EUSKARALDIA. Bide beretik, Ipar Euskal Herri mailan ekimenaren antolatzen ari den batzordean herritarren ordezkariak ere ukanen ditugu, euskalgintza soziala eta instituzionalaren ondoan.

2.3. Sare baten barne

Sare baten barne direla azaltzen diegu Aho Bizi eta Belarri Prest-ei. Bai, ariketa pertsonala da, artetan norberaren barnak inarrosiko dituen ariketa pertsonala, baina Euskal Herriko milaka herritarrek une berean burutuko dutena. Ingurune erabat frantses batean denari indarra emanen diolako, euskara ikasten dabilenari eta urratsa egitea sekulako erronka zaionari berdin ala hamaika egunez aldaketa burutu eta lehen hitzak euskaraz eginen dituen okinari ere berdin. Dimentsio kolektiboaz ohartarazi nahian, adibidez, BAM! astean aritu ginen sms bidez mezu igortzen parte hartzaileei, kolektiboaren indarra sendiarazteko.

“Gure esku da” izpiritua barneratu nahi dugu parte hartzaileetan. Ipar Euskal Herriari doakionez, euskararen aktibazioa ez delako zerutik eroriko, ez eta ere Paristik. Hitzun gisa, badugu zer egin. Aho Bizi eta Belarri Prest-en sarea osatzeko ardura ere haien esku dela diogu: bakoitzak bere ingurukoei aipa dezala eta horrela zabal dezagula Aho Bizi eta Belarri Prest-ek osatu sarea. Ipar Euskal Herrian badugu herrigintzaren kultura, auzolanarena eta euskararen erabilpenaren arloan EUSKARALDIAK aktiba dezake hau.

2.4. Belarri Prest-en garrantzia.

Orokorki, herri batzordeetan argiki eta errazki ikusten dute zein izan daitekeen Aho Bizi. Nonbait, orokortzeko, parte handi batean euskaraz harremantzen garenok, hots, herriko euskaltzale etiketatuak. (Alta, hor ere tronpatu gaitzke, Aho Bizi txapak ez duelako “euskal hitzuna nauzu” erran nahi, baizik eta “ulertuz gero, euskaraz ariko natzaizu”. Haatik, Belarri Prest-ak identifikatzea zailago zaie.

Alta, Belarri Prest-ak garrantzitsua dira biziki, ezinbestekoak ditugu, eragin nahi badugu beharrezkoak ditugu. Puntu horri buruz insistitzen dugu. Jakinik ahal bezain bat herritarren gain eta beraz plaza publikoan eragitea dugula xede, parte hartzaileen sareak zabala izan beharko du. Euskara ikasten dabiltzan gau eskoletakoak ezinbestekoak ditugu. Euskarari atxikia baina egunerokoa frantsesez duen euskaradunak beharko dugu. Baxenafarroa eta Xiberoari doakionez, etxean euskaraz eta etxetik atera orduko frantsesez ari diren anitz baditugu, “zerbait bilakatzeko frantsesez aritu behar duzu” ideia barneraturik, orain hautuz ala ohituraz, horrela dabiltzan anitz ditugu. Hauek Belarri Prest izatera lortuko dugua? Hau dugu erronka. Kostaldean frantsesak euskal hitzun bilakaraztea baldin bada erronka, barnekaldean, etxean euskaraz eta kanpoan frantsesez ari diren horiek kanpoan euskaraz arraraztea dugu bidea. Agian, ez dira Belarri Prest izanen, baina Aho Bizi eta Belarri Prest-en presentziari esker entzunen dute hizkuntza

udaltop

UDALETAKO EUSKARA
ZERBITZUEN TOPAKETAK
www.udaltop.eus



ohiturez hitz egiten eta deia hori lorpen handi bat izanen da, gerora beharbada Belarri Prest eta nork daki Aho Bizi izateko bidean.